TOKIKO GOBERNU BATZORDEA | JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea
EGUNA / FECHA: 21/03/2018
HASIERA / INICIO: 20:50
AMAIERA / FINAL: 21:00

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATEA/ALCALDE
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera

Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Tokiko Gobernu Batzordea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Zulueta jauna gai ordenaren laugarren puntuan iritxi zen. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.

Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion, aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatu zaien gai -zerrendaren arabera, eta akordio proposamen hauek egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose las siguientes propuestas de acuerdo:

**1.- Aurreko saioko akta.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen 2018ko otsailaren 21eko saioko akta onartzea.

**1.º.- Acta de la sesión anterior.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 7 de marzo de 2018.

**2.- Bilera Abiña Andoni Deuna auzoko biztanleekin.-**

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion bilera egin dela Abiña Andoni Deuna auzoko biztanleen ordezkariekin, non ondoko gaiak aztertu ziren:

a) San Antonioko hondartzako atsedenlekuko pinu-beldar izurritearen arazoa.
b) Urkitze eta Aizpuru familiaren jabetzaren arteko zuhaiztia kimatzeko beharra.
c) Abiña Andoni Deuna auzoko 5., 6. eta 7. zenbakien pareko kalea zabaltzea.
d) Zirkulazioa berriro antolatzeko proposamena: Iturrondotik sartu, Ibarretarako norabidean, San Antoniotik igaro eta Udalekuan amaitu.
e) Aparkaleku gehiago sortzea, laugarren kale bat gaituta eta atsedenlekuak hegoalderago dauden eta Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzakoak diren beste lursail batzuetara eramanda.
f) Euri-urak husteko arazoa Abiña Andoni Deuna auzoko 4. eta 5.eko etxeen artean; urak itsasadarraren ubidera isurtzen dituen estolda-zuloa kolapsatuta dago.
g) Auzoko jaiak.

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, ondokoa erabaki zuen:

a) Bizkaiko Foru Aldundiari pinu-beldarraren eta aparkalekua handitzeko eta mugitzeko proposamenaren berri ematea.
b) Euskal Herriko Kosta Mugapearekin harremanetan jartzea, euri-urak husteko arazoa azter dezan.
c) Urkitze eremuko zuhaiztia kimatzen hastea.
d) Abiña Andoni Deuna auzoko 5., 6. eta 7. zenbakien pareko kalearen zabalkuntza 2018ko udal-aurrekontuan sartzeko aukera aztertzea.

**2.º.- Reunión con los vecinos del barrio de Abiña Andoni Deuna.-**

La Junta de Gobierno Local fue informada de la reunión mantenida con una representación de los vecinos del barrio de Abiña Andoni Deuna, en la que se analizaron los siguientes temas:

a) Problema con plaga de procesionaria de pino en el área de esparcimiento de la playa de San Antonio.
b) Necesidad de poda del bosquete situado entre Urkitze y la propiedad de la familia Aizpuru.
c) Ensanchamiento de la calle situada frente a los números 5, 6 y 7 de Abiña Andoni Deuna.
d) Propuesta de nueva ordenación de tráfico entrando por Iturriondo en dirección a Ibarreta, pasando por San Antonio y terminando en la Colonia.
e) Creación de más plazas de aparcamiento habilitando una cuarta calle, trasladando el área de esparcimiento a otros terrenos, propiedad de la Diputación Foral de Bizkaia, situados más al sur.
f) Problema de evacuación de las aguas pluviales entre las casas 4 y 5 del barrio Abiña Andoni Deuna, al haberse colapsado el sumidero que desembocaba en el canal de la ría.
g) Fiestas del barrio.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

a) Informar a la Diputación Foral de Bizkaia de los asuntos relativos a la procesionaria del pino y a la propuesta de la ampliación y modificación del parking.
b) Contactar con la Demarcación de Costas del País Vasco para analizar el problema de la evacuación

e) San Antonio jaia udalaren festa egitarauan sartzea.

de aguas.

c) Proceder a la poda del bosquete en la zona de Urkitze.

d) Estudiar la posibilidad de incluir el ensanchamiento de la calle frente a las casas 5, 6 y 7 del barrio de Abiña Andoni Deuna en el presupuesto municipal de 2018.

e) Incluir la fiesta de San Antonio dentro del programa municipal de fiestas.

**3.- Lursail-erosketa San Kristobalen.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Eliza Katolikoari (Altamirako San Migel parrokia) San Kristobaleko baselizaren ondoko 130,73 $m^2$-ko lursaila erostea, 30.000 €-an eta ondoko baldintzen arabera:

a) Parrokiak baseliza konpontzera bideratu beharko du salerosketaren zenbatekoa.

b) Ordainketa baselizan egikaritzen diren lanen arabera burutuko da.

c) Parrokiak konpromisoa hartuko du elizpe berria eraikitzetik sortuko den eremua erabilera publikokoa izateko.

**3.º.- Compra de terreno en San Cristóbal.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó adquirir a la Iglesia Católica (Parroquia de San Miguel de Altamira) un terreno de 120,73 $m^2$ junto a la ermita de San Cristóbal, por un precio de 30.000 € y las siguientes condiciones:

a) La Parroquia deberá destinar el importe de la venta a la reparación de la ermita.

b) El pago del precio se hará efectivo en función de la ejecución de las obras que se realicen en la ermita.

c) La Parroquia se compromete a que el espacio que resulte de la construcción de un nuevo pórtico tenga un uso público.

**4.- Aireko lineak lurperatzea Altamiran.-**

Alkate jaunak Altamirako plazan dauden aireko lineak lurperatzeko egindako izapideen berri eman zuen. Jakinarazi zuen Udalak, duela urte batzuk, aireko lineak lur azpitik eramateko lanak egin zituela, eta Iberdrola enpresak bere gain hartu duela lineak lurperatzeko lanei dagokien zatia, baina oraindik ez dela erabaki nork hartuko dituen bere gain banakako harguneak aldatzeari dagozkion lanak. Gainera, gauza bitxia gertatu da: lineen ezabapenaren sustatzaileak (Z. jauna) ez du inolako zenbatekorik ordaindu behar; beste jabe batzuek, ordea, diru-kopuru handiak ordaindu behar dituzte.

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen kalteturiko jabeei egoeraren berri ematea eta haien artean konponbidea bilatzeko eskaera egitea.

**4.º.- Soterramiento de las líneas aéreas en Altamira.-**

El Sr. Alcalde informó de las gestiones realizadas para el soterramiento de las líneas aéreas existentes en la zona de la plaza de Altamira. Informó de que el Ayuntamiento realizó hace años las obras para la canalización subterránea de las líneas eléctricas y que la empresa Iberdrola asume la parte correspondiente a los trabajos de soterramiento, pero que queda pendiente de decidir quién asume los trabajos correspondientes a la modificación de las acometidas individuales, con la circunstancia curiosa de que el promotor de la eliminación (Sr. Z.) no tiene que pagar ninguna cantidad, mientras que otros propietarios se ven obligados a realizar importantes desembolsos.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó informar de estas circunstancias a los propietarios afectados instándoles a que busquen una solución entre ellos.

**5.- Administrari laguntzaileen ordezkapenak.-**

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion oporretan edo baimen-egunetan administrari laguntzaileen ordezkapena egin beharko lukeen pertsona (egindako azken hautaketa-prozesuaren ondorioz sortutako lan-poltsan dago) uda

**5.º.- Sustituciones auxiliares administrativos.-**

La Junta de Gobierno Local fue informada de que la persona a la que le correspondería la sustitución de las auxiliares administrativas durante sus vacaciones o permisos (por formar parte de la bolsa de trabajo formada tras el

honetan ez dela izango eskuragarri, eta zaila dela beste hautaketa-prozesu bat egitea, astirik ez dagoelako, besteak beste.

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eratutako lanpoltsara jotzea, haren ustez berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak errespetatuta egin baita hautaketa-prozesua.

último proceso selectivo realizado) no está disponible este verano, y la dificultad y falta de tiempo para realizar un nuevo proceso selectivo.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó utilizar la bolsa de trabajadores constituida por el Instituto Vasco de Administración Pública, por considerar que tiene los requisitos de ser el resultado de un proceso selectivo realizado con respeto de los principios de igualdad, publicidad, mérito y capacidad.

**6.- Egurra ateratzeko abalaren itzulketa.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen ondoko eskaerak onartzea:

- Otoio Forestal, S.L.-rena, Amesti baserriko bidea erabiliz J. O.ren jabetzakoa den Amesti menditik egurra ateratzeko jarrita duen 2.000 €-ko fidantza itzul dakion.
- Otoio Forestal, S.L.-rena, Alarbin bidea erabiliz M. N. R.ren jabetzakoa den Zeletas menditik egurra ateratzeko jarrita duen 2.000 €-ko fidantza itzul dakion.

**6.º.- Devoluciones de avales por saca de madera.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar las siguientes solicitudes:

- Otoio Forestal, S.L., para la devolución de la fianza de 2.000 € que tiene depositada para la saca de madera del monte “Amesti”, propiedad de J. O., utilizando el camino del caserío Amesti.
- Otoio Forestal, S.L., para la devolución de la fianza de 2.000 € que tiene depositada para la saca de madera del monte “Zeletas”, propiedad de M. N. R., utilizando el camino de Alarbin.

**7.- Joseba Basterretxea Elorrietaren aparkaleku-txartela.-**

Ikusita Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak igorritako aldeko txostena, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen J. B. E. jaunari eskaturiko ezinduentzako aparkaleku-txartela ematea.

**7.º.- Tarjeta de estacionamiento de Joseba Basterretxea Elorrieta.-**

Visto el informe favorable emitido por el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder la tarjeta de estacionamiento para minusválidos, solicitada por J. B. E.

**8.- 2018ko Enplegu Planeko langileen hautaketa.-**

Tokiko Gobernu Batzordeari 2018ko Tokiko Enplegu Planaren barruan aurkezturiko eskaerak baloratzeko egindako proben emaitzen berri eman zitzaion; emaitza horiek puntuazio-ordena hau ezarri dute:

**8.º.- Selección Plan de Empleo 2018.-**

La Junta de Gobierno Local fue informada de los resultados de las pruebas realizadas para la valoración de las solicitudes presentadas dentro del Plan de Empleo Local de 2018 y que han dado el siguiente orden de puntuación:

| | Totala/ Total | Ordena / Orden |
|---|---|---|
| J. M. D. A. | 36,5 | 3 |
| J. I. L. | 43,63 | 2 |
| E. O.-A. Z. | 53,33 | 1 |

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen, 2018ko apirilaren 3tik aurrera eta sei hilerako, E. O.-A. Z. eta J. I. L. langile aritzeko kontratatzea; eta 2018ko apirilaren 16tik aurrera, J. M. D. A.

Tokiko Gobernu Batzordeak, halaber, aho batez erabaki zuen berriz ere epea zabaltzea lanpostuetarako hautagai gehiago aurkez daitezen.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó contratar como peones para un periodo de seis meses, a partir del 3 de abril de 2018, a E. O.-A. Z. y J. I. L. y, a partir del 16 de abril, a J. M. D. A.

Asimismo la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó abrir un nuevo plazo para que se presentasen nuevos aspirantes a los puestos.

| 9.- Kanpaldien arauketa.- | 9.º.- Regulación de las acampadas.- |
|---|---|
| Kontuan hartuta eremu publikoetan, kirol-instalazioetan, elizpeetan eta abarretan kanpatzeko Udaletxean jaso ohi diren baimen-eskaerak, eta kontuan hartuta eremu horiek ez dutela komunik izaten eta horrek osasungarritasun-arazoak ekar ditzakeela, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen ez ematea baimen-mota horiek hirigunean. | Ante las peticiones que se suelen recibir en el Ayuntamiento para acampar en espacios públicos, instalaciones deportivas, pórticos, etc…, y considerando que ese tipo de espacios carecen de baños, lo cual puede provocar problemas de salubridad, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó que no se concedan ese tipo de autorizaciones en zonas urbanas. |
| Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta. | Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico. |
| Alkatea/El Alcalde, | Idazkaria/El Secretario, |
| Izp./Fdo.: Aitor Aretxaga Telletxea | Iz./Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez |